

2020IHTZ0001

ASTIGARRAGAKO UDALAREN ETA GARBITANIA ZERO ZABOR SL ENPRESAREN ARTEKO KUDEAKETA-AGINDUAREN HITZARMENA, AZTERKETA EKONOMIKO-TEKNIKO BAT EGITEKO

Astigarragan, 2020ko otsailaren 26an.

AURKEZTU DIRA

Batetik, XABIER URDANGARIN LASA, Astigarragako Udaleko alkate lehendakari gisa, 2020ko otsailaren 25ean egindako tokiko gobernu batzarrak hartutako erabakiaren arabera jarduten duena.

Bestetik, LUR ETXEBERRIA GURRUTXAGA, GARBITANIA Zero Zabor SL-ko Administrazio Kontseiluaren lehendakari gisa Administrazio Kontseiluaren akordioaren arabera jarduten duena.

PARTE HARTZEN DUTE

Biak, euren karguen funtzioei dagokienez, elkarri onartzen diote hitzarmen hau sinatzeko ahalmena eta gaitasuna, eta horretarako

ADIERAZTEN DUTE

Lehena.- 2010eko maiatzaren 7an GARBITANIA sozietatea eratu zen, zenbait udalerriren bitarteko propio eta zerbitzu tekniko gisa estatutuen 2. artikulua arabera – Batzar Orokorrak 2018ko apirilaren 27an hartutako erabakiaren bidez aldatua –, sozietatearen helburu soziala honako hau da:

“Sozietateak zuzenean nahiz zeharka egin ditzake ondoren zehazten diren jarduerak baita xede bereko edo berdineko edozein motetako sozietateetan parte hartuz ere.

a.- Hiri hondakinen eta asimilagarrien oinarritzko zerbitzuak zuzenean ematea da, hauen gaikako bilketa, kudeaketa, aprobetxamendua eta tratamendua, gai honen inguruan dauden legezko xedapenak eta Europakoak betez.

b.- Arlo horietan mota guztietako aholkuak ematea eta bilketa, kudeaketa eta tratamendu sistema espezifikoak inplementatzeko bitartekoak eta modukoak sustatzea, hondakin sorkuntza ahalik eta gehien murrizteko, ahalik eta gehien berziklatzeko eta arlo horretan indarrean dauden xedapenetan zehaztutakoa hobeto betetzeko

c.- Bide publiko, lorategi eta kale garbiketako zerbitzuak ematea”.

GARBITANIA, Astigarraga Udaleko bitartekoa denez, izaera juridiko pribatuko merkataritzako erakundea den arren, bere kudeaketari aplikatu behar dizkio tokiko araubidearen legearen arabera aplikagarri zaizkion zuzenbide publikoko zenbait atal, hala

nola: kontratazio publikoa, langileak hautatzeko araudia, aurrekontuen erregimen ekonomikoa eta hitzarmen hau sinatzeko unean edo etorkizunean legeak zehazten duen beste edozein.

Bigarrenen.- Astigarragako udal osoko bilkurak, 2013ko martxoaren 21eko bileran, erabaki zuen Garbitania Zero Zabor sozietatearen partizipazioak erostea, eta 2018ko maiatzaren 30ekoan, berriz, sozietatea uztea eta eskatzea udalak bertan duen partaidetza itzultzea. Baina, akordio hori ez zenez gauzatu, osoko bilkurak 2019ko uztailaren 23an egindako bileran akordio hau hartu zuen:

***“Lehenen.**- Garbitania Zero Zabor, SL sozietateari eskatzea 2018ko maiatzaren 30eko udal osoko bilkurak hartutako akordioaren egitea geldi dezan.*

***Bigarrenen.**- Azterketa ekonomiko eta juridikoa egitea balioesteko sozietatean mantentzeko egokitasunaren inguruko bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta juridikoa.*

***Hirugarrenen.**- Akordio honen berri ematea Garbitania Zero Zabor, S.L. sozietateari”*

Hirugarrenen.- Udalak ez du behar adina giza baliabide 2019ko uztailaren 23ko osoko bilkuran hartutako bigarren erabakian adierazten den azterketa egiteko, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 11. artikulua ezartzen duenez administrazio bereko edo beste bateko beste organo edo erakunde batzuei agindu ahal izango zaizkiela jarduera materialak edo teknikoak, eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak, berriz, ahalmena ematen die administrazio publikoei beren baliabide propioei kudeaketa-gomendioak esleitzeko, batez ere obra eta zerbitzuak, Garbitania Zero Zabor, S.L.ri agindu nahi zaio azterketa hori egitea.

Laugarrenen.- Hitzarmen honetan zehaztuko den bi erakundeen arteko harremana bi erakundeen tipologia eta izaera ezberdina errespetatuz egingo da.

Udalarentzat bere bitartekoaren jardueri buruzko kontrola egiteko eta fiskalizatorako aukera emango dion tresna izango da, eta elkarteak Udalarekin dituen betebeharrak zehatz eta nagusiak zehaztuko ditu. Era berean, Udalak elkartearekin dituen konpromisoak zehaztuko ditu ikuspegi ekonomiko-finantzariorik, eta oro har, Udalaren betebeharrak zehaztuko ditu.

Elkarte publikoarentzat hitzarmen honek Udalaren aginte eta enkarguak osatzen dituen kudeaketaren helburua eta irismena zehazten du.

Bosgarrenen.- Hitzarmen honen edukiak Udalaren alde bakarreko jarraibideen bidez garatuko dira, bere bitarteko eta zerbitzu teknikoentzat, eta GARBITANIAK ezinbestean bete beharko ditu, eta sinatzen duten aldean elkarrenganako eskubide eta betebeharrak zehazten ditu.

Aurrekari horien arabera, bi aldeek hitzarmen hau sinatzen dute baldintza hauetan:

BALDINTZAK

LEHENA.- Objektua.

Hitzarmen honek GARBITANIA sozietateak eman beharreko zerbitzuak arautzen ditu, Udalaren bitartekoa eta zerbitzu teknikoa den heinean.

Hitzarmenak arautzen ditu Udalaren eta GARBITANIAren arteko harremanetik sortutako eskubide eta betebeharrak.

Aurrekoaren arabera, Astigarragako Udalak GARBITANIA sozietateari eskatzen dio, eta honek onartu, hainbat zerbitzu publikoren zuzeneko kudeaketari buruzko azterketa ekonomiko-teknikoa egitea.

Zehazki, GARBITANIAk onartzen duen kudeaketa enkarguak bere gain hartuko du, udalaren laguntzarekin batera, ekintza-plan hau:

Herrian, egun egiten den hondakinen bilketaren diagnosia	Egun jasotzen den zerbitzuaren nondik norakoak definitu
	Indarguneak eta ahulguneak definitu
	Komertzioen bilketa aztertu
	Bilketa emaitzekin alderatu
	Udalak lehentasunak ezarri (irizpide ekonomiko eta ingurumen ikuspegiak kontutan hartuta)
Poligonoen bilketa	Erroldak eguneratu
	San Markok egiten duena behatu eta dimentsionatu
	Ordenantzak prestatu
	Beharrak definitu
	Ezarpenerako prestatu
Kale garbiketa	Zerbitzuaren azterketa burutu
	Ibilbideak zehaztu
	Bitartekoak zehaztu

Auzo eta auto konposta	Langileei dagozkien gaiak zehaztu
	Ezarpena prestatu
	Gai honetan lehenik egoeraren diagnosia egin beharko da
	Ondoren lehentasunak ipinita bixitak eta hedakuntza kanpaina antolatu beharko da

BIGARRENA. Bitarteko propioa eta zerbitzu tekniko izaeraren betebeharrak.

GARBITANIAK bere gain hartzen ditu, bere izenean eta Udalaren kontura, eta, betiere, hitzarmen honetan itundutakoaren esparruan, honako betebeharrak hauek:

- a) Zerbitzu publikoa ematea, lehen klausularen arabera.
- b) Zerbitzua ematean ikusten diren gertaeren berri Udalari ahalik eta azkarren ematea.
- c) Zerbitzua ematearekin lotutako gaietan, udal organoei, laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea.
- d) Alkateari, edo honek izendatzen duen pertsonari, eta udaleko teknikariei laguntza eta aholkularitza ematea sozietatearen helburu sozialarekin zerikusia duten egitekoetan.
- e) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendutik (EB) eratorritako betebeharrak (Pertsona fisikoen babesa arautzen du erregelamendu horrek datu pertsonalen tratamenduari eta zirkulazio askeari dagokienez, eta 95/46/EE -Datuak babesteko erregelamendu orokorra- Zuzentaraua indargabetu du) betetzea; baita ere Eskubide Digitalen Bermerako eta Datuak Babesteko 3/2018 Lege Organikoa.
- f) Sektore publikoko toki-erakundeei legeria espezifikoa aplikatzea arlo hauetan: aurrekontua, kontabilitatea, finantza-kontrola, giza baliabideen kudeaketa eta kontratazio publikoa.

HIRUGARRENA.- Astigarragako Udalaren eskubideak eta betebeharrak.

Astigarragako Udalari dagokio agindutako analisi ekonomiko-teknikoa egiteko beharrezko jarraibideak ematea, eta, beharrezkoa bada, gomendioaren xede den jardura material zehatzari euskarria ematen dioten edo hura barne hartzen duten izaera juridikoko egintza edo ebazpen guztiak ematea.

Era berean, Astigarragako Udalari honako betebeharrak hauek dagozkie:

1. GARBITANIari Astigarragako udal-mugartean dauden industrialdeetan kokatutako enpresen zerrenda ematea.
2. GARBITANIaren esku jartzea dokumentua egiteko interesgarria izan daitekeen eta udalak duen informazio guztia.
- 3.- GARBITANIarekin elkarlan hestua mantentzea.

LAUGARRENA.- *Finantzaketa.*

Astigarragako Udalak 82.436,73 euro ordainduko dizkio GARBITANIari agindutako zerbitzuak egiteagatik. Zenbateko hori udal-aurrekontuaren kontusail hauetatik ordainduko da: 1 0400.227.99.162.22 eta 1 0400.227.99.162.30

BOSGARRENA. - *Zerbitzuen fakturazioa.*

GARBITANIAk, zerbitzu emakidari dagokion kostuen inputazioa egingo du, eta hileroko zerbitzuei dagokion faktura igorriko du, hilaren 10a baino lehen. Faktura guztiak telematikoki aurkeztuko dira, eta Udaleko ingurumen teknikariaren oniritzia jaso ondoren, ordainduko dira, gehienez ere aurkeztu eta 30 egunera.

SEIGARRENA. *Jarraipen-batzordea.*

Jarraipen Batzorde bat ezarriko da, alderdi bakoitzeko bi ordezkari osatua (bata politikoa eta bestea teknikoa). Ordezkar horiek behar beste aldiz bilduko dira, alderdietako edozeinek hala eskatuta, hitzarmen honen xedearekin zerikusia duten jardueren koordinazioa eztabaidatu eta adosteko.

ZAZPIGARRENA. *Hitzarmenaren iraupena, aldaketa eta suntsiaraztea.*

1. Hitzarmen hau sinatu ondoren izango da eraginkorra.
2. Indarraldia urtebetekoa izango da, eta luzatu ahal izango da, alderdiek aldez aurretik hala adostuta. Hasierako indarraldia amaitu baino lehen hartu beharko da erabaki hori, eta gehieneko epea ez da, inola ere, 4 urtetik gorakoa izango.
3. Hitzarmena azkendu ahal izango da, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik.
4. Hitzarmen honen balizko aldaketak, sinatzaileek aho batez adostutakoak, dagokion aldarazpen-tresna sinatuz formalizatu beharko dira, hasierakoa onartzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza berberekin. Nolanahi ere, horrek ezin izango du ekarri

GARBITANIAK bere helburu sozialean sartzen ez diren prestazioak egitea.

ZORTZIGARRENA. Hitzarmenaren araubidea eta jurisdikzio eskuduna.

Hitzarmen honek Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 11. artikuluan aurreikusitakoen izaera du, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 6.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, lege horretatik kanpo dago, bere arau berezien bidez arautzen da eta sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko adierazitako legearen printzipioak aplikatzen dira.

Hitzarmen hau interpretatzean, aldatzean, ebaztean eta aplikatzean sor daitezkeen ondorioei buruz sortzen diren eztabaidak hitzarmen honetan aurreikusitako Jarraipen Batzordean konpondu beharko dira, hitzarmen honen indarraldian sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, auzigaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardura eta eskumenekoak izango dira, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera.

BEDERATZIGARRENA. Publizitatea.

Kudeaketa-gomendioaren hitzarmen hau gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 11.3 B) artikuluan xedatutakoaren arabera argitaratuko da. Horretarako, alderdiek berariaz ematen dute baimena hitzarmen honi eskatutako publizitatea emateko.

Eta horrekin ados daudela erakusteko, parte-hartzaileek agiri hau, eta beharrezko ale guztiak, sinatu dituzte, ondorio berarekin, aipatutako lekuan eta egunean.

Xabier Urdangarin Lasa
Astigarragako alkatea



Lur Etxeberria Gurrutxaga
Garbitania Zero Zabor SM
Administrazio Kontseiluko Lehendakaria

